

BertsoJazza

51. Heineken Jazzaldian, BertsoJazzaren bigarren edizioa estreinatuko da uztailaren 24ean Donostiako Victoria Eugenia Antzokian, 22:00etan. Lehenengoak, 2008an ospatu zenak, ikusleen eta komunikabideen aldetik harrera bikaina izan zuen.

Parte-hartzaileak

Bertsolariak: **Andoni Egaña, Miren Amuriza, Beñat Gaztelumendi eta Jon Maia.**

Gai-jartzailea: **Unai Elizasu.**

Musikariak: **Bixente Martinez** (gitarra), **Amaiur Cajaraville** (kontrabaxua), **Hasier Oleaga** (bateria), **Julen Izarra** (saxoa) eta **Xabier Zeberio** (biolina)

Puntako bertsolariek eta musikariek bat-batean oholtza gainean emanaldi berezi bat inprobisatuko dute.

Helburua garbia da: munduan bat-batekotasunean oinarritzen diren bi kultur adierazpide garrantzitsuenak oholtza berean eta elkarrekin jardutea. Alde batetik, jazz; bestetik, bertsolaritza. Musika eta hitzaren bat-batekotasuneko bi alorrak.

Bertsoa eta jazz musika batera ariko dira Victoria Eugenia Antzokiko oholtzan. Ez da bertso saio bat izango, non musikariek, bigarren planoan, piezaren bat edo beste joko duten. Ez eta jazzeko kontzertu bat ere, non bertsolariek zerbait sinbolikoa abestuko duten. Musikariek bertsolariekin eta bertsolariek musikariek, batera egingo dituzte inprobisazioak, benetako elkarrizketa eratuz: musika izango da bertsolarientzako gaia eta bertsoak musikarien gaia.

Aurretik egindako bileretan, doinuak, tonuak eta erritmoak landu dira. Saioaren egitura ere egina dago. Baina bat-batean, bertan hasiko dira uztailaren 24ean, gaueko hamarretan. Gai-jartzaileak eta musikariek ezarriko dizkieten gaiak, kantak eta bestelakoak izango dira bertsotarako aitzaki.

Oholtzaratuko diren bertsolariak Andoni Egaña, Miren Amuriza, Jon Maia eta Beñat Gaztelumendi izango dira, gai-jartzaile lanetan Unai Elizasu ariko da, eta, musikariei dagokienez, Bixente Martinez izango da zuzendari musikala, Amaiur Cajaraville, Hasier Oleaga, Julen Izarra eta Xabier Zeberio lagun izango dituelarik.

PARTAIDEAK

Andoni Egaña (Zarautz, 1961) . Bertsolaria

Andoni Egaña erabat sorkuntzari emana bizi da gaur egun: bertsolari gisa ez ezik, telebista saioetako gidoigintzan eta idazle moduan ere nabarmendu da. Literaturan hainbat esparru jorratu ditu eta euskal prentsan kolaborazio asko egin ditu iritzi-emaile moduan. Disko bat ere badu argitaratua berak idatzitako bertsoekin, eta besterentzat ere idatzi izan ditu kantuak. 80ko hamarkadaren bukaeratik aurrera, 90eko hamarkadan batik bat, bera izan da bat-bateko bertsogintzaren ordezkari nagusietakoa. Bertsolari ez ezik, ikertzaile, aztertzaile eta teorizatzaile moduan ere nabarmendu da Egaña. Berezi azpimarratzekoa da bat-bateko bertsoa sortzeko prozesua azaltzeko eta ezagutarazteko egin duen ekarpena.

Azpimarratzekoak dira Egañak Txapelketa Nagusian 1993, 1997, 2001 eta 2005ean lortutako garaipenak eta zenbait argitalpen: *Aitaren Batean* (Elkar, 1990), *Bat bateko bertsolaritza* (Bertsozale Elkarte, 2002) edota *Niri ez zait futbola gustatzen, eta zer?* (Elkar, 2004). 2012 eta 2014ean, bi obra sortu ditu Xabier Lizaso pianojolearekin batera: *Bi arreba* eta *Garai hura gara*. Emanaldi hauek herriz herri eskaintzen ari dira.

Miren Amuriza (Berriz, 1990). Bertsolaria

Miren Amuriza Plaza euskal filologoa da ikasketaz, Haur eta Gazte Literaturan espezializatua. Gaur egun Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean dihardu irakasle lanetan eta kolaboratzaile moduan aritzen da hainbat aldizkari eta egunkaritan.

Gaztetxotatik egon da bertso munduari lotua eta hainbat urte daramatza plazarik plaza kantatzen, bertso eskolak ematen eta Bizkaiko zein Euskal Herriko txapelketetan parte

hartzen. Sorkuntzari dagokionez, haurrentzako hainbat ipuin kaleratu ditu, baita musika taldeentzako letrak idatzi ere. 2015eko udazkenaz geroztik Mozambiken eginiko egonaldi batean oinarrituriko *Kapulana bat zintzilik* emanaldia herriz herri aurkezten dihardu.

Beñat Gaztelumendi (Añorga, 1987). Bertsolaria

Beñat Gaztelumendi kazetaria da ikasketaz, eta bertsolaritzaren inguruan aritzen da lanean, *Bertsoa.eus* eta *Hitzetik Hortzera* proiektuetan. Horrez gain, hedabide batean baino gehiagotan aritu izan da kolaboratzaile lanetan, eta hainbat musika talderen abestien hitzen egilea ere bada.

Ume-umetatik aritu izan da bertsogintzan, eta Eskolartekoan eta gazte sariketetan sari bat baino gehiago lortua da. Gipuzkoako Bertsolari txapelkun geratu zen 2015ean, bitan bigarren egin ondoren (2007an eta 2011n). 2013ko Txapelketa Nagusian ere finalera iritsi zen.

Jon Maia (Urretxu, 1972). Bertsolaria

Jon Maia, telebistako gidoilari eta dokumental zuzendari lanean aritzen da. Azken urteetan *Bidaia intimoak*, *Gazta zati bat* eta *Apaizac obeto* dokumentalak zuzendu ditu. Euskal prentsan kazetari eta kolaboratzaile aritu da, iritzi-emaile moduan. Euskal Herriko musika talde askorentzat idatzi izan ditu abestien letrak. Idazle lanetan ere jarduten du eta bi liburu argitaratu ditu: *Apaizac obeto* (Elkar, 2006) eta *Riomundo* (Txalaparta, 2005).

1997an, 2001ean, 2005ean eta 2009an, Txapelketa Nagusiko azken saiora iritsi zen, eta 2003ko eta 2007ko eta 2015eko Gipuzkoako Txapelketan ere finalean izan zen.

Unai Elizasu (Altza, 1980). Gai-jartzailea

BertsoJazza emanaldi ideia sortu eta gauzatu zuen. Gai-jartzaile lanetan txapelketetan eta plazaz plaza dabil. Formatu berrien sortzaile izan da, baita emanaldi berezien eragile (Errimak oinetan, Barkatu, Erregea eta bufoia, Bertsolaria bere bakardadean, Bertsojazza...). Bertsoa oinarri duen Puntutan arropa dendaren sortzailea eta kudeatzailea da egun.

Bixente Martinez (Eibar, 1954) Gitarra

Eibarren jaioa 1954an, konpositore, arreglista eta instrumentista profesionala da 1976tik. Autodidakta da, gitarra bere instrumentu nagusia delarik, bai elektrikoa bai akustikoa.

Oskorri taldeko partaidea izan zen 1973tik urtetik iaz taldea desegin arte eta taldearen grabazio eta kontzertu guztietan hartu du parte. Ruper Ordorika eta Joseba Tapiarekin batera Hiru Truku taldeko partaidea ere bada bere sorreratik, orain dela hamalau urte. Hiru disko dituzte argitaratuak.

Bai Oskorri eta bai Hiru Truku taldeekin Euskal Herritik kanpo Espania guztian zehar, Portugalen, Frantzia, Suitzan, Alemanian, Belgikan, Argentinan, Uruguayan eta Kanadan eman ditu kontzertuak.

Zinema arloan, Jose M. Tuduriren *Karlistadaren kronika* filmaren musika konposatu du, eta antzerki arloan, Kukubiltxo taldeko *Behin bazen...*, *Kukubel* eta *Txirrikiz* obren musikak egin ditu eta Deabru beltzak taldeko *Ibiltariak*, *Bikiak*, *A E I O U*, *Zentzumenak* eta *Olentzero* obrena.

Igelaren Banda taldearen sortzailea da. Talde honek Euskal Herriko erritmo eta doinu tradizionalak hartzen ditu abiapuntu gisa, eta gero, inprobisazio eta harmonizazio orijinalekin, bide berriak jorratzen ditu Euskal Herrian egiten den musika instrumentalaren arloan. Taldeak 2013. urtean argitaratu zuen bere bigarren diskoa, *Preguntatxo bat* izenekoa eta 2015ean berez azken lana, *Debalde festa*, bertso doinuetan oinarritua.

BertsoJazza egitasmoaren zuzendari musikala da. 2008ko uztailean hasi zen BertsoJazza egitasmo honetan bi inprobisazio mota ezberdinak elkartzen dira, bertsolariena eta musikarena.

Amaiur Cajaraville (Donostia, 1978) Kontrabaxua

Kontrabaxu Klasikoan Lizentziatua da, Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Kontserbatorioan. Mundu klasikoan hainbat talde eta Ensembledan kolaborazioak eginak ditu baina horretaz aparte beste musika esparrutan ere aritzen da, musika modernoan, musika tradizionalan, jazzean eta hainbat kantautoreekin batera.

Azken urte hauetan kolaborazioak egin ditu hainbat bakarleri eta talderekin: Pantxoa eta Peio, Mixel Ducau, Olatz Zugasti, Mikel Markez, Jexuxmai Lopetegi, Iñaki Dieguez, Oreka tx taldea, Arkaitz Miner eta Juan Arriola, Txertubi taldea, Kukai dantza konpainia eta Aiko taldea, beste batzuen artean.

Gaur egun Benito Lertxundirekin musikari bezala ari da eta Igelaren Bandaren partaidea da.

Julen Izarra (Eibar, 1977) Saxoa

Julen Izarrak musika ikasketak Eibarren hasi zituen eta Donostiako Kontserbatorioan jarraitu. Goi Mailako saxofoi titulazioa eta Eusko Jaurlaritzak irakasleentzako antolatutako Joera Ezberdineko Gaikuntza eginak ditu. Astigarraga eta Zumaiako Musika Eskoletan saxofoi irakasle izana da, baita Ermua eta Oretetako Musika Eskoletan ere.

Gaur egun, Izarra Euskal Herriko Goi Mailako Kontserbatorioan (Musikenen) ari da ikasketak hobetzen. Besteak beste, EGO, Tenoclok eta Jeshmar taldeetako partaide izan da. Egun Organik's, Evidence Quartet eta Acido C taldeetan dabil.

Xabier Zeberio (1978, Tolosa) Biolina

1982an hasi zituen biolin ikasketak, Suzuki metodoarekin eta Ana Maria Sebastianen eskutik. 1998an, Donostiako Konserbatorioan Goi mailako Biolin titulua eskuratu zuen. Ondoren, Bordeleko Conservatoire National-en jarraitu zuen eskolak jasotzen Vladimir Nemtanuren eskutik. Rafaella Acella maisuarekin sakondu zuen interpretazioa.

Aldi berean, Jazz kontrabaxua, Harmonia modernoa, Moldaketak eta Konposizioa ikasi zuen Donostiako JAZZLE, musika moderno eta jazz eskolan.

1997an Euskadiko Gazte Orkestran eta Oskorri taldean sartu zen. Talde honetako partaide moduan 2015 urtean burututako despedida emanaldiekin 18 urteko ibilbide sakonari amaiera eman berri diolarik.

Et Incarnatus Orkestra eta Alos Quartet taldeetako partaide sortzailea da.

Hainbat orkestrarekin kolaboratu du: Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, Pablo Sarasate Orkestrarekin eta Irungo Fundazioko orkestrarekin.

Musikari moduan 100 grabaketa baino gehiagotan parte hartu du eta artista ugarirekin lan egin du zuzenean zein estudioan: Dulce Pontes, Mikel Erentxun, Los Piratas, Kepa Junkera, Imanol, Carlos Nuñez, Rafa Rueda, Ken Zazpi, Jabier Muguruza, Oreka Tx, La Buena Vida, Benito Lertxundi, Iñaki Salvador, Esne Beltza, Antony, Phil Woods, Anari, Antton Valverde, Mikel Markez, Mikel Laboa eta abar..

Hainbat filmerako soinu banden grabaketetan ere parte hartu du: Pascal Gaigne, Bingen Mendizabal eta Anjel Illarramendi konposatzaileekin esate baterako.

2002an Nyckelharpa suediar instrumentuarekin maitemindu eta buru belarri hasi zen hura lantzen.

Lau disko kaleratu ditu konposizio originalekin: Alos Quartetekin *Alos Quartet*, *10 Tanta*, *Garden* (NOCD) eta *ON Proiektua* Pello Ramirezekin elkarlanean.

Gaur egun Alos Quartet eta *ON Proiektua* egitasmoekin dabil zuzenekoak eskaintzen.

Hasier Oleaga (Bilbo, 1979) Bateria

Egun Donostian bizi den musikaria da Hasier. Bere heziketa Bartzelona eta Euskal Herriaren artean osatu du. Kataluniako hiriburuko Taller de Músics eskola famatuan eta Euskal Herriko Goi Mailako Kontserbatorioan, Musikenen, alegia.

Bateria-jotzaile gisa estilo anitzetako hainbat egitasmotan eta lan diskografikoetan parte hartu du. Horien artean aipagarriak dira Mikel Laboa, Ruper Ordorika, Maddi Oihenart, Mikel Urdangarin, Gari edo Iñaki Salvadorekin eginikoak. Horietaz aparte Bingen Mendizabal, Fernando Velázquez edo Federico Jusid bezalako musikagileekin egindako lanak filmetako musikaren munduan.

Oleagak nazioarteko zenbait jazz artistekin egin du lan eta estatuko jazz festibal nagusietan parte hartu du. Musikari horien artean David Berkman, Guillermo Klein, Jorge Rossy, Aaron Goldberg, Joe Smith, Jean Marie Ecay, Carmen Canela, Gorka Benítez, Dusko Gojckovich, Guillermo Calliero, Donald Harrison, Wycliff Gordon, Terrell Stafford edo Chris Kase bezalako musikari handiak daude. Gainera, Madrilen bizi den Bob Sands saxujole estatubatuarren laguntzailea izan da maiz.

Bestalde, Hasierrek estatuko jazz musikari handiekin jo izan du, Tete Montoliu-rekin aritutako Horacio Fumero musikari uruguaitarra, Albert Bover, Víctor de Diego, Mikel

51 Heineken® Jazzaldia

Andueza, Joan Díaz, Joaquín Chacón, Alfons Carrascosa, Ion Robles, Pirineos Jazz Orquesta eta abar.

Ortophonk taldearen fundatzailea izan zen, Euskadi eta Nafarroako talderik onena bezala SGAE-k saritua Bilbo Hiria sariaren XIII. edizioan. 2003an Berklee College of Music eskolaren beka jaso zuen eta 2006an Debajazz txapelketaren lehen saria jaso zuen Zafari Project taldearekin.

Gaur egun Ruper Ordorikaren Mugalari, Iñaki Salvadorren kolaboratzaile eta Bixente Martinezen Igelaren Bandaren kide izateaz gain, Raul Romo saxofoilariarekin batera duen Maracas para dos taldearen parte da. Gainera Cantus Caterva bere taldearekin dagoeneko bi disko kaleratu ditu.

Hasierrek parte hartu duen lan diskografiko batzuk kaleratuak izan dira berriki, hala nola: Miguel Salvadorren *Codigo*, Tenpora taldearen *Mundu berria* edota Ainara Ortega kantariaren lehenengoa, *Scat* deritzona. Egun Nevermind Trioren laugarren diskoaren prestaketan dabil buru-belarri.